

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Erabiltzaileekiko aurrez aurreko harremana izatea zaila dela deritzogu, hori dela eta, gure enpresak erabaki du beste baliabide batzuk erabiltzea une oro bezeroaren eskura egoteko. Horregatik, atal honetan bezeroarekiko edukiko dugun harremana zehaztuko dugu.



Enpresa honek garrantzi handia ematen dio konfiantzazko harremanari; izan ere, saltzaile batek bezeroarengan konfiantzarik sortzen ez duenean harpidedun kopurua handitzea zaila delakoan gaude. Horretarako, argitasuna eta gardentasuna ezinbestekoak dira. Horregatik, bezeroari ahalik eta modu argienean azalduko diogu informazioa, bere zalantza argitzeko eta mesfidantza saihesteko, ziurtatuz gure erantzunaz fida daitekeetala. Era berean, bezeroarekin ezarritako konpromezu guztiak beteko ditugu; hala nola, aplikazioak ondo funtzionatzen duela ziurtatu, emailak azkar erantzuten ditugula egiaztatu... Horrela, aplikazioa fidagarria dela bermatuko dugu.

Aurretik aipatutakoaren harira, gure aplikazioan gehigarri bat sortuko dugu. Hasteko, lehen esan bezala, konfiantza sorraraziko duen gure bibliografia txiki bat azalduko da; hala nola, nortzuk gara, ideia nondik sortu den, gure helburuak... galderak erantzuten dituen azalpen txiki bat. Horrez gain, gure ustetan, bezeroek izan ditzaketen galderen erantzunak agertuko dira. Adibidez, aplikazioa nola erabiltzen den: zeintzuk diren jarraitu beharreko pausoak (1. produktuaren kodearen argazkia ateratzea. 2. Koderik ez balego, bilatzeko barran materialaren izena jartzea. 3. Ondoren azalduko informazioaren arabera zakarrentzi batera ala bestera botatzea), zertarako da baliagarria, gurekin partaidetzan dabilzan enpresa eta elkarten informazioa eta haiek zertan laguntzen gaituzten.

“Trashout” aplikazioa elebilduna izango da, euskara eta gazteleraz egongo da; izan ere, gu euskaldunak izanda gure ama hizkuntza bertan azaltzea ideia ona iruditzen zaigu eta horrela euskararen garapena eta zabalkuntzari lagunduko diogu. Hala ere, Euskal Herrian, non gure aplikazioa gehien publizitatu izango den, jende askok euskara ulertzen ez dutenez, gaztelania hizkuntza erabiliko dugu haiek ere App-a erabiltzeko gai izan daitezen.



Amaitzeko, aplikazio munduan hasi berriak garenez, kritika konstruktiboak beharrezkoak direla iruditzen zaizkigu. Hauek jaso ahal izateko atal bat sortuko dugu aplikazioaren barnean. Horrela, guk jakin ahal izango dugu zeintzuk diren gure abileziak eta ahuleziak. Jasoko ditugun iritzi guztiak, esker onez kontuan hartuko dira, eta ahalik eta azkarren dauden arazoak konponduz.

